

A gur esateko ordua heldu zaigu. 2014an argitaratu genuenean lehen zenbakia (160 or.) ez geneukan ideiarik ere zelan egin baina egin genuen eta gainera irakurleei asko gustatu zitzairen. Nobedadea, kontixu. Bigarrena 2016an atera genuen (192 or.) eta hirugarrena 2018an (256 or.). Eskuetan duzuen, 2021ean argitaratua, izango da azkena. Gustura ibili gara lan polita delako baina nekatu egin gara. Ehun bat artikulu ekarri dizkizuegu, denak mimatuta, topera zainduta zuongana dotore heltzeko. Kalitate gorena delako gure ikurra, iragarkia dirudi. Behintzat horixe izan da asmoa. Asmoa eta gaitasuna batzeko Kinukakoen laguntza ezinbestekoa izan dugu, abilitadea eta pazientzia bere neurrian. Tira, eskerak emateko txoko bihurtu baino lehen moztuko dugu. Badoa Kurik, bagoaz kurikeruak, benetan zoroak, eta milioiun eskaintzaren bat ez bada agertzen agur (ez dadila egun handira arte izan).

GURE KURIKEK ERPE EGIN BARIK
ALTZOA BEROTU DIZULAKOAN,

KURIKeruaK

Ainhoa eta Maia Iturbe Kurik 1ari kurika.
2014ko Gabonetan.



